berrikuntza publikoaren plana · plan de innovación pública

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Ardatz estrategikoa:** | **5. ardatza.- Administrazio elektronikoa** | **Proiektua:** | **5.3. Elkarreragingarritasuna** |
| **Azpiproiektua:** | **5.3.3. Elkarreragingarritasun Zerbitzuak Zabaltzea** | | |
| **Deskribapenaren laburpena:** | Eskura dauden Elkarreragingarritasun Zerbitzuen erabilera zabaldu nahi da, Eusko Jaurlaritzako sailetako eta organismo autonomoetako espedienteak erregulatzeko eta kudeatzeko orduan administrazio publikoen arteko datuak truka daitezen paperezko ziurtagirien ordez. | | |

**Helburu orokorrak:**

- Eskura dauden Elkarreragingarritasun Zerbitzuen erabilera orokortzea.

**Helburu operatiboak:**

| | Abendua (2014) | Abendua (2015) | Abendua (2016) |
|---|---|---|---|
| Elkarreragingarritasuna erabiltzen duten prozeduren ehunekoa | 60 | 80 | 100 |

**Egikaritzea:**

- 2014-2016ko BPParen ezarpen-aldian, Eusko Jaurlaritzako **407 prozedura**tan erabili dira elkarreragingarritasun-zerbitzuak (beste administrazio batzuetako datuen kontsultak).
- Guztira **1.588 prozedura identifikatu dira** eta, Planaren indarraldian zehar, horietatik **%25,63 %k** erabili dituzte elkarreragingarritasun-datuak.
- 2014-2016Ko BPParen indarraldian zehar, ia-ia **7 milioi datu-transmisio** egin dira, eta, horien artean, zerbitzu hauek erabili dira gehien: identitate-datuak – Polizia (4 milioi), egoitza datuak –EIN– (milioi bat), Gizarte Prestazio Publikoak –GSDN – (milioi erdia) eta Erroldako datuak –EAEko udalak (milioi erdia). Eta Eusko Jaurlaritzatik, prozedura hauetan egin dira kontsulta gehienak: Diru-sarrerak bermatzeko errenta (3 milioi), hizkuntza-eskola ofizialak (2 milioi), unibertsitate-bekak (milioi erdia) eta ikastetxeetako matrikulak (250.000 transmisio).

| **Arduraduna:** | **Aldi baterako aurreikuspena:** | **Egikaritzeko benetako epea:** | **Egoera:** | **Balorazioa:** |
|---|---|---|---|---|
| DACIMA | Epea: 3 urte<br>Hasiera: 2014<br>Amaiera: 2016 | Hasiera:<br>Amaiera: | ☐ Amaitua<br>■ Aribidean<br>☐ Hasi gabe | ☐ Positiboa<br>■ Hala-nolakoa<br>☐ Negatiboa |

**Oharrak:**